



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

102 zenbakia
euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria



GELDITU DEZAGUN PALESTINA KO HERRIAREN AURKAKO GENOZIDIOA!

**24 orduko
GREBA
OROKORRA
orain!**



GENOZIDIO SIONISTAREN AURKAKO MENDEBALDEKO INPERIALISMOAREN Greba orokorra orain!

Ezker Iraultzailea

Genozidio sionistaren aurkako altxamendu internazionalistak sekulako indarra hartu du. Manifestazioak munduko bazter guztietan ugaritzen dira, eta langile mugimenduak ekintzari ekin dio Italiakoa bezalako greba orokorrak eginez. Presioa hain da handia, ezen bi urtez sarraski hori babestu duten mendebaldeko potentzia asko demagogikoki eta presaka baitabilta existitzen ez den Estatu palestinar bat aitortzen dutela esanaz. Modu horretan, Netanyahu ematen dioten laguntza militarra eta finantzarioa estaltzen saiatzen ari dira, baita ehunka mila gazatarren hilketan eta lurraldearen suntsiketan duten erantzukizun zuzena ere.

Gobernu inperialisten konplizitatea

24 orduko greba orokorrarekin Italia gelditu zuten irudiak kolpe latza izan dira. Iraitlaren 22an, Erroma, Milan, Genova, Bologna, Napoli eta beste hainbat hiri milaka manifestariz bete ziren, sekulako indarra erakutsiz. Aparteko aurrerapausoa da hau eta txirrindulari Itzulian sionismoa zurtzea eragotzi zuen mobilizazio masiboari, edo Gazako kostaldera doan ontzidi humanitarioaren erronkari gehitzen zaio. Azpitik eragindako ekintza zuzena izan da taula politikoa astindu duena.

Milioika pertsona daude shock egotzen. Begien bistan Palestinako herriaren holokaustoa ikusten ari gara, naziek ju-

duen aurka antolatu zutenaren parekoa. Horrek erantzun masiboa astindu du, Netanyahu babestu duten potentzien hipokrisia agerian utziz.

Presio handi horren ondorioz, Britainia Handiak, Kanadak, Frantziak eta beste herrialde batzuek berehala aitortu dute Palestinako estatua. Aurretik, Pedro Sanchezen Gobernuak ere egin zuen. Baina, egia esan, zer esan nahi du aitortza horrek Gaza zuzenean suntsitua izan denean? Herriarrak erailak eta gosete anker batera jazarriak izan dira eta Netanyahuren erasoaldi militarrek potentzia horien laguntza militar eta finantzarioarekin jarraitzen du.

Aitortza hau euren erantzukizuna ezkutatzeko estalki miserable bat da. Izan ere, "bi estatuen" konponbidearen alde egiten jarraitzen duen diplomazia ustelak ezkutatu egiten du aukera hori izan dela egungo hondamendia ekarri duena. Israel kolonialismoan eta herri palestinarren aurkako garbiketa etnikoan sortutako Estatua da. Hainbat hamarkadatan, AEBetako inperialismoaren gerra tresna izan da, Ekialde Hurbilean bere interesak defendatzeko. Estatu sionista saritan sekulako laguntza militar eta ekonomikoa eman zaio. Eta hori ankerkeria sistematikoak egiteko baliatu du, etengabeko gerra erasoak eginez eta milaka zibil erailez,

kartzeletan milaka preso palestinar pila-tuz, lurraldeak legez kanpo okupatuz eta Zisjordanian banda faxista gisa antolatutako kolonoak erabiliz lurra lapurtzeko.

Aspaldi salatu genuen Osloko Akordioak oso tresna baliagarria izango zirela lurralde okupatueta apartheid sionistaren erregimena indartzeko. Akordio horiek Washingtonetik diseinatu ziren eta Palestinaren Askapenerako Erakundeko zuzendaritzak eta munduko ezker erreformistaren gehingoak babes sutsua eman zien. Israeldarren armek kontrolatutako eta inguratutako Estatu palestinar baten fikzioak sufrimendu, zapalkuntza eta heriotza gehiago besterik ez luke eragingo.

Palestinako herriak estatu propioa izateko duen eskubidea ezin daiteke burutu Ekialde Hurbileko agente kapitalista, inperialista eta sionistaren markoan. Palestinako herriaren autodeterminazioarako eskubidea iraultza sozialistaren eskutik baino ezin da etorri. Boteretik kentzetik estatu terrorista sionista eta baita Washingtonen txotxongilo diren erregimen arabiar burges eta ustel guztiak; izan ere, ez dute inoiz hatzik mugitu Palestinaren al-

de eta funtsezkoak izan dira Israelek estrategia zapaltzailean aurrera egin dezan.

Palestinako herriak bere lurraldean bizitzeko duen eskubidea sozialismoaren aldeko borrokarekin lotuta dago, hau da, Ekialde Hurbileko Federazio Sozialista bat eraikitzearekin, ezinbestekoa bizikidetza baketsu baterako oinarriak ezartzeko eta herri eta nazioen eskubide demokratiko guztiak errespetatzeko. Israelgo burgesiak Estatu palestinar independentea onartuko duelako ideia, oinarri kapitalista izan arren, erabateko fartsa eta utopia erreazionarioa da. Ez dute inoiz onartuko, bi urte hauetan argi geratu den bezala.

Sionismoa, faxismoa eta mozkin kapitalistak

Sionismoaren, trumpismoaren eta faxismo globalaren izurri arrearen aurkako borroka, arrakastaz ematekotan, programa iraultzaile eta internazionalistan oinarritu behar da. Ezinbestekoa da sozialismoaren bandera irmo altxatzea langile klase osoa eta munduko herri zapalduak batzeko.

Zentzu osoa du sakoneko gai horiek argitzeak NBERen Batzar Nagusian buru-



KAKO ALTXAMENDU GLOBALAK N KONPLIZITATEA BILUZTU DU

zagi ugarik gizateriaren aurkako krimen horren aurrean egindako aieneak eta bularreko kolpeak ikusten ditugunean. Zer egin dute lider horiek bi urte hauetan? Gerra sionistako makineriari lagundu. Zer egingo duzue hemendik aurrera? Keinuak alderik alde biderkatu, baina AEBetako inperialismoa eta Netanyahu aliatua geldiaraziko dituen edozein neurri eraginkor zapuztu.

Macronen, Pedro Sanchezen edo Felipe VI.a erregearen hitzak herrialde kapitalistetakotako krisi politiko ikaragarriari emandako erantzuna dira, deserosoa, Israelek “bere burua defendatzeko” duen eskubidea etengabe aldarrikatu eta sionismoa ahal bezain beste babestu dutelako.

“Iritzi aldaketa” hunkigarri horren arrazoiak mundu osoko langile klaseak eta gazteek genozidioa kondenatzeko hartu duten jarrera da. Izan ere, Palestinako herriaren aurkako krimen hori behar bezala lotzen da “demokrazia aurreratuetan” jasaten ari garen politika errepresibo basatiekin (horietako asko sozialdemokraziak babesten ditu) eta hainbat herrialdetan eskuin muturra sustatzen eta inposatzen ari den agendarekin, klase agintariaren oniritziarekin noski.

Irailaren 15ean, NBERen Palestinarako Errelatore den Francesca Albanesek publikoki salatu zuen Gazako biktimen kopurua orain artekoa baino hamar aldiz handiagoa dela: “680.000 pentsatzen hasi beharko genuke, hau delako, akademiko eta zientzialari batzuen arabera, Gazako hildakoen benetako kopurua”. 680.000 biktima horietatik, gutxienez 380.000 haurrak izango lirateke.

“Azken konponbidea” burutzeko pauso gisa, irailaren 21ean, Israelgo armadak Gaza Hiria erasotzeari ekin zion tankeekin eta aire-erasorekin. Bertan geratzen ziren etxebizitza gutxi batzuk eraitsi dituzte, milaka zibil hil dituzte eta beste ehunka milaka basamortura bota dituzte. Gosez hiltzeko berriazko exodoa da.

Aldi berean, Bezalel Smotrich, Gobernu Sionistako Finantza ministro eta, egiazki, kolono faxisten taldeen buruak, Zisjordaniaren %82 anexionatzeko plana aurkeztu zuen. Izan ere, berak eta Itamar Ben Gvir Segurtasun ministroak zuzentzen dituzten banda faxistek dagoeneko inposatu dute hori, “segurtasun-batailoia” osatuz, Israelgo armadaren unitate erregularrekin, familia palestinarren tiroz josi, etxeak bota eta lurak erantzeko. Mila hilketa izan dira aurtan Zisjordanian!

“Hau da sionismoa adierazpen gorenean: gure subiranotasuna eraikitzea, kolonizatzea eta indartzea Israelgo Lurrean [...] Estatu palestinarra mapatik ezabatzen ari dira, ez esloganekin, ekintzekin baizik. Kolonia bakoitza, auzo bakoitza, etxebizitza bakoitza beste iltze bat da ideia arriskutsu horren hilkutxan” dio harro Smotrich. Hori da estatu sionistak, eta bere babesle den AEBetako inperialismoak, “bi Estatu” aitortzea planteatzen dieten gobernuari ematen dien erantzuna.

Estatu Batuetako inperialismoaren tizat, Gazako holokaustoa ez da Netanyahu ezartzen dien gaitz txiki bat, baizik eta apustu estrategiko bat. Txinak eta Errusiak osatutako bloke arerioaren aurrerapen geldiezinen aurrean mundu mailako hegemonia lortzeko borrokan dagoen betebeharra da.

AEBko inperialismoak nazi-sionismoa behar du mezu hau bidaltzeko: arlo ekonomikoan eta produktiboan nagusitzeko indarrak ez dutenez, argi utzi behar dute oraindik ere botere suntsitzaile handia dutela eremu militarrean, eta hori erabiltzeko prest daudela. Oraindik zalantzan daudenentzat, Vance presidenteordeak Tel Aviv bisitatu zuen, Gaza hiriaren aurkako erasoaldiaren hasierarekin eta Zisjordania anexionatzeko planen aurkezpenarekin bat eginez. Trump Netanyahurekin eztabaidatzen ari den gauza bakarra harrapakinarekin banaketa da.

Gauza bera esan daiteke burgesia arabiarren zinismoari buruz. Palestinar herriaren aldeko manifestazioak zapaltzen eta Washingtonekin lankidetzat aktiboa estutzen ari dira. Masen haserre eta amorrua pilatzen ari dira, eta horrek, berandu baino lehen, eztanda iraultzaileak eragingo ditu.

Bestalde, ezin uler daiteke nazi-sionismoaren inpunitea, ez bada bloke inperialistakotako bankuek eta enpresa handiek eraso militar sionistatik lortzen dituzten onura erraldoietatik: “berreraikuntzarako” planak, turismoa, higiezinaren espekulazioa, gas eta nekazaritza baliabideen ustiapena eta abarren zain daude.

Estatu Batuetako Administrazioak 17.900 milioi dolarreko laguntza militarra bidali zuen 2023ko urritik 2024ko urrira. Urte horretako aurrekontu militar sionistaren %38. Estatu Batuetako enpresa pribatuek ere 39.200 milioi dolar inbertitu zituzten Israelen 2024an. Era berean, Europako enpresak eta bankuak daude Estatu sionistako atzerriko zuzeneko inbertsioaren buruan, 72.100 milioirekin. Inbertsio horietako asko lurralde okupatuetan egiten dira. Bestalde, Txinak 20.000 milioira iristea espero du aurtan zuzeneko inbertsioan, eta dagoeneko bere aparatuekin militar eta teknologikorako giltzarri diren industrietan erregimen sionistaren lehen inbertitzaile eta hornitzailea da.

Borroka inperialistaren joko handian, ez Txinak ez Errusiak, ezkerreko sektore batzuetatik “herri palestinarren lagun” gisa makilatzen diren arren, ez dute atzamar bat mugitu genozidioaren aurrean. Egia esan, Beijingek eta Moskuk Netanyahu kinka larrian jar zezaketen, baina ez dute egin, eta baliabideak ematen jarraitzen diote, inguruan dituzten proiektuak, akordioak eta negozioak arriskuan egon ez daitezen.

**Dena gelditu genozidioa gelditzeko.
24 orduko greba orokorra!**

Euskal Herrian genozidioaren aurkako borroka mugimendu masibo bihurtu da,

Bigarren edizioa

El genocidio sionista
en Gaza y la cuestión
nacional palestina
54 orrialde • 5€



manifestazio eta era guztietako protestekin. Zabaldu eta gogortu egin behar dugu mugimendu hori. Horregatik, garrantzitsua da horietan guztietan salatzea EAJk eta euskal kapitalistek sionismoarekin eta haren estrategiarekin duten konplizitatea. Hori da puntu nagusia, eta oso oker da biltza kritika hori leuntzen duten edo kritika horri uko egiten dioten ezker abertzaleko agintariak eta erakundeak.

Hainbat kazetaritza ikerketen arabera, euskal enpresek ia 200 milioi euroko produktuak saldu zituzten Israeli 2022an, Australia edo Kanadaren kopuru bera, eta 2023rako fakturazioa 300 milioikoa izan zen. CAF elkarlan honen adibide emblematikoa da: Tel Aviveko tren arinaren eraikuntza eta Jerusalemen eraikitzen ari diren kolonien asentamenduak eta lurralde okupatuak lotuko dituen tranbian parte hartzen du.

El Salto aldizkariak beste azterketa nabarmen batean adierazi zuen bezala: “Israelgo enbaxadaren, euskal administrazio publikoen eta Repsolen euskal filialaren (Petronor) arteko harremanak tranpolin gisa erabiltzen ari dira ‘laguntza, lankidetzat eta aliantza programetarako, erakundeen aurreko ordezkarietarako eta nazioko eta nazioarteko ekitaldietan parte hartzeko’. Kutxabank, Siemens Gamesaren finantza lagun gisa, funtsezkoa da Palestinako lurraldea okupatzen ari den herrialdeko industria fosilaren garapenean”.

Hori guztia publikoki ezagutzen denean, Imanol Pradales lehendakariak lotsagabekeria bat dauka esateko Eusko Legebiltzarrean: “CAFek ez du Gazako genozidioan laguntzen. [...] Aski da enpresak seinalatzeaz eta demagogia egiteaz. Aski da inpostura egiteaz eta drama instrumentalizatzeaz”. Bere hitzek ez dute inor engainatzen: sionismoaren konplize lotsagabeak dira.

Mundu osoan bezala, Euskal Herriko langile klasea eta gazteria haserre eta amorruz gainezka daude genozidioaren aurrean. Ikasle Abertzaleek eta Ikasle Sindikatuak urriaren 2rako deitutako ikasleen greba orokorra, urriaren 4ko manifestazio jendetsua eta ELA, LAB, CCOO eta Steilasek Euskal Herriko lanuzte orokor baten alde egindako iragarpena, seguruenik urriaren 15a izango dena, aurrerapauso oso garrantzitsuak dira.

Lanuztea eta greba ezinbesteko tresna da genozidioaren aurkako borrokan. Langile klaseak dena gelditu behar du behartzeko Eusko Jaurkitza, Nafarroako

gobernua nahiz Estatu espainiarra sionismo hiltzailearekin harreman mota guztiak moztera eta armen enbargo osoa gauzatzera. Horregatik, iragarritako lanuzte horrek greba orokor bat izan behar du, ahalik eta ekintza-batasun handienarekin, 24 ordukoa, enpresa guztietan antolatutako batzarrekin, eta argi eta garbi seinalatu behar ditu genozidioaren eragile konplize guztiak.

Ez dago denborarik alferrik galtzeko, asko dugu jokoan.

**Estatu sionistarekin
harremanak erabat
apurtu berehala!**

**Ekialde Hurbileko federazio
sozialista baten alde!**

**Ibaitik itsasora,
Palestina izango da!**



Zer den egun KOMUNISTA izatea

XXI. mendean, kapitalismoak gizateria kale itsu batera darama. Berrarmatze militaristak eta munduko nagusitasunaren norgehiagokak bultzatutako gerra inperialistek, Palestinako herriaren aurkako genozidio sionista basatiak edo ingurumenaren suntsiketak argi erakusten dute burgesia zein urrun iristen ari den basakerian.

Demokraziak agintzen duen munduaren iruzurrezko promesak estalki higuigarriak dira egunero pairatzen ditugun emakumeen aurkako indarkeria, lan prekarizazioa, murrizketa sozialak edo banketxe eta etxejabe errentarien poltsikoak betetzen dituen “legezko” espekulazioa ezkutatzeko. Eta hori guztia errepresio eta basakeria polizial geroz eta latzagoarekin, eta gure neba-arreba etorkinak kriminalizatu eta gure klasea zatitzen duen legeria arrazista batekin.

Eskuin muturraren aurrerapena kapitalismoaren usteltzearen eta politika “liberal” eta sozialdemokraten porrotaren emaitza da.

Izan ere, Ministroen Kontseilueta eroso dagoen eta botere ekonomikoen esklabo den ezker hori da erreakzioari bidea errazten ari zaiona. Horregatik, bere burua zuzitzeko aipatzen duen “antifaxismoa” indargabea da. Ultraeskuinaren mehatxua langileon eta gazteon mobilizazio sendo eta masiboagoarekin bakarrik garaitu daiteke.

Sistema kapitalistarekin hautsi nahi dugunok badakigu gauzak ez direla botoekin

bakarrrik aldatuko. Esperientzia historikoak erakusten du zapalduen aldeko benetako aurrerapenak antolakuntza kontzientearen eta klase borrokaren emaitza direla.

Eta hau da Ezker Iraultzailearen proiektua: masen alderdi bat eraikitzea, programa komunista baten alde egingo duena, langile eta gazte mugimenduetan esku hartuz, borroka ideologiko eta teorikoan aurrera eginenez, sektarismo antzurik gabe.

Ezker Iraultzailean barne demokrazia eta parte hartzea funtsezkoa da. Militantzia formatua eta erabakitzen duena da antidotorik onena burokratizazioaren, arribismoaren eta oportunismoaren aurka.

Gure klasearen tradizioz onenetan oinarritzen gara. Hilero kuota bat ordaintzen dugu erakundea finantzatzeko eta gure egunkariak —*Euskal Herria Sozialista*, *El Militante*, *O Militante* eta *Militant*— banatzen ditugu ikastegi, lantegi eta enpresetan, mugimendu sozialetan eta manifestazioetan.

Langile mugimenduan sindikalismo borrokalaria eta asanblearioa bultzatzen dugu. Ikasle Sindikatua, Emakume Aske eta Borrokalariak plataforma feminista iraultzailea eta F. Engels Fundazioa eraiki ditugu, berrehun liburu baino gehiago dituen argitaletxe marxista, zenbait euskaraz.

Komunistok ez gara existitzen gobernu kapitalistetan murgiltzeko, oso aurrerakoi direla esan arren. Hori desituxuraketa zabarra da. Komunista izatea ez da sare sozialetako estetika, ezta ogibide bat ere. Komunista izatea oligarkia kapitalistaren boterearekin amaitu

zeko borrokatzea da, eta hori bateraezina da bere sistema kudeatzearekin.

Estatuko Aldizkari Ofizialetik zerua hartzera iritsi daitekeela eta sozialdemokraziarekin batera Gobernu batean parte hartzeagatik jendearen bizitza aldatuko zela zioen hipotesia erabat gezurtatu da.

Indar korrelazioa benetan aldatzeko eta eskubideak erdisteko, ezinbestekoa da kapitalistekin eta haien gobernuarekin konfrontazioa bultzatuko duen estrategia politikoa. Greba orokorretara eta masa mugimendu handietara aurrera egitea ahalbidetuko duena. Krisi kapitalistak sortzen dituen baldintzak iraultza sozialistarako baliatuko dituena.


Komunista iraultzaileok sozialismoa defendatzen dugu. Eta zer esan nahi du horrek? Gizartean dagoen aberastasun izugarria, aberats gutxi batzuek kontrolatzen dutena, langileen eskura jartzea eta hau gertatzeko dagoen modu bakarrean egitea: monopolio, banku eta lur-jabe handiak desjabetuz.

Gerretatik, zapalkuntza sozial guztietatik (izan nazio, arraza, generokoa...) askatutako gizarte sozialista batean, kapitalismoaren gaitzak historiaren zaborrontzira bidaliko ditugu, eta gizateriaren lorpenak izugarri gartuko dira.

Sozialismoa edo basakeria!

Batu zaitez gure webgunearekin edo
Whatsapparen bidez 622 174 122

Ezagutu gure programa sakonera
gehiagorekin QR honetan



BATU EZKER IRAUTZAILERA

ezkeriraultzailea.net